

~~~~~  
*Meatze-  
esparruen  
arrastoak  
HAPOn sartuko  
dira*

*/5. orrialdea*



~~~~~  
*150.650  
euro, Gizarte  
Larrialdiko  
Laguntzetan*

*/2. orrialdea*

~~~~~  
*19 kontratu  
berri, Tokiko  
Enplegu  
Planaren baitan*

*/3. orrialdea*

~~~~~  
*Aparkatzeko  
beste hoge  
plaza,  
Malekoian*

*/4. orrialdea*

~~~~~  
*Talleres  
Gallarreta, oso  
profesional  
bereziak*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### Garrantzitsuena, pertsonak

Muskizko Udala buru-belarri ari da premia gehien duten pertsonen babes-sistema eraginkorra eskaintzeko lanean, hala nola, adinekoei, ezinduei, inolako ordain-saririk jasotzen ez dutenei, gutxieneko saria jasotzen duten alargun eta pentsiodunei, tratu txarren biktima diren emakumei, iraupen luzeko langabeei, etab.

Hain zuzen ere, pertsonen aldeko eta zerbitzuei eustearen aldeko apustua da gure kezka nagusia. Hala, gaur egungo egoera larria gorabehera, ez diogu utzi gizarte-politikan inbertsioak egiteari. Izan ere, gure ustez, lehenetsia eman behar zaio premia handiena dutenekiko solidaritateari. Xede horrekin, gizartegastuan inolako murrizketarik eragingo ez duen eta herritarren eskubideak bermatuko dituen aurrekontua prestatzen dihardugu.

Guztiok gaude apur bat nazkatuta behin eta berriro entzuteaz aurreikuspenak ez direla onak: etengabe aipatu ohi dira atzeraldia, gizarte-lorpenen galera eta langabeziaren igoera, eta etsipenezko giroa zabaltzen ari da guztien artean, izan langile nahiz enpresaburu.

Nork ez dauka zailtasunak dituen senitarteko edo ezagunen bat? Enpresek gero eta gutxiago saltzen dute eta langileak kanporatu beharrean edo, are okerragoa, atek itxi beharrean aurkitzen dira. Era berean, etorkizunari begirako ziurtasunik ezak beldurra eragiten die oraindik krisiak bete-betean jo ez dituen ere. Hau da, gurpil zoro batean sartuta gaude, eta nolabait hautsi behar dugu gurpil hori.

Jakina, ez dago irtenbide magikorik. Gakoa hau da: guztiok bat egitea eta, nork bere aukeren arabera, solidaritatearen bidez, zulotik irteten laguntzeko ahal den ekarpena egitea. Hau da, *“ahaleginaren kultura”* berreskuratzea.

Hau da idatzi zuen Einsteinek, eta bat nator harekin: *“Krisiaz hitz eta pitz aritu orde, ekin diezaiozun lanari, eta deusezta dezagun benetan mehatxagarria den krisia: krisia bera gainditzeko borroka egin nahi ez izatearen tragedia”*.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## Udalak jarraipena emango die nerabeentzako programei

**D**roga-mendekotasunen Prebentzio eta Prebentzio Selektiboko Motibatu programei jarraipena ematea onartu du Udalak, baita Ikasgune programa esleitzeko lehiaketaren oinarriak ere. Guztiak ere 6 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeei begirako ekimenak dira.

Droga-mendekotasunen Prebentzio Komunitarioko proiektua 2014ko martxora arte luzatu da. Proiektu horren ardura Ortzadar enpresaren esku dago, 2005az geroztik, eta ekimenaren baitako jardueren amaierako aurrekontua 23.540 €-koa da.

Prebentzio Selektiboko Motibatu programa Somorrostroko Prestakuntza Zentroan gauzatuko da. Eusko Jaurlaritzak

diruz lagundutako ekimena da, eta haren amaierako zenbatekoa 4.600 eurokoa da. Programaren xedea da irakasleei preskakuntza egokia ematea, nerabeei droga-kontsumoari buruzko orientazioa emateko eta substantzia horien erabilerari buruz ahulen diren gazteen familiekin bitartekarritza-lana egiteko.

Bestalde, Udalak Ikasgune programa esleitzeko oinarriak argitara eman ditu; bi urterako esleipena izango da. Programa horren bidez, desabantaila soziokulturaleko testuinguruetan bizi diren haurren ikaskuntza hobetu nahi da, arreta handiagoa emanez integrazioaren eta eskola-errendimenduen hobekuntza-prozesuei, emaitzei beraiei baino.

## 150.650 euro, Gizarte Larrialdiko Laguntzetan, 2012an

Muskizko Udalak 150.650 euro banatu zituen guztira, 2012. urtean, Gizarte Larrialdiko Laguntzetan; zenbateko horretatik 59.528 euro Eusko Jaurlaritzak ezarri zituen. GLLak banakako laguntzak dira, eta, alde aurretik eskaria behar bezala eginda, egoera bakoitza zehatz-mehatz aztertzen da horiek banatu aurretik; hala ere, laguntza horietan talde gisa kontuan hartzen dira premia bereziak dituzten zenbait kolektibo, hala nola, etorkinak, familia ijitoak, adinekoak eta ezinduek, etab. Era berean, arreta berezia eman zaie honako talde hauei ere: adingabeen gaineko ardura duten

familia-guneak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta familia gurasobakarrak, tradizionalez gainera. Laguntzen zertarako askotarikoa izan daiteke: oinarri-oinarriko premiak esaltzea (elikadura), etxeko gastuak ordainagiriak, alokairua, zorrrak finantzatzea eta bestelakoak.

Gonzalo Riancho Gizarte Ekintzako zinegotziak nabarmendu zuenez, *“Udala ahalegin berezia egiten ari da onuradun guztiak urtea amaitu aurretik jaso dezaten laguntza, hau da, eskaria egin zuten ekitaldiaren barruan”*.

# 19 kontratu berri, Enplegu Planaren baitan



**U**dalak, FORLANen bidez, 200.000 euro bideratu ditu 19 langaberi kontratuak egiteko. Ekimen horri esker, kontratatutako langileek lanaldiaren %75eko kontratua izango dute, 6 hilabetez. Hain zuzen ere, Udalak erabaki zuen lanaldi osoko kontratuak ez egitea, herritar gehiagori ematearren ekimen honen onuradun izateko aukera.

Enplegua sustatzeko proiektu honen baitan, hamalau behargin eta bi ardura-dun kontratatatu ditu Udalak, Ingurumen Saileko eta herri-altzariak konpontzeko lanetarako, baita Lanbide Orientazioko erdi mailako bi teknikari eta administrari bat ere.

19 kontratu berri gehitu behar zaizkie, beraz, 2012an FORLANek sustatuta edo Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan garatutako tokiko enplegua sustatzeko programen baitan sortutako 115 enpleguei. Udalbatzak hamar herritar kontratatatu ditu, Diru-sarreraren Berme Errenta jasotzen ari zirenak, kualifikazio apala zuten 30 urtetik beherakoak edo/eta 45 urtetik gorako iraupen luzeko langabeak.

Udalak Lanbiderekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean garatutako ekimen honi egindako ekarpenak Muskizko Eskualdeko Enplegu Planaren amaierako zenbatekoaren %80 baino zertxobait gehiago hartzen du.



## Eskualdea Biziberritzeko Programa berria

Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Eskualdea Biziberritzeko Programa ekintzailtzako trebetasunak garatzeko eta negozio-plan bat gauzatzeko interesa duten langabeei begira antolatutako ekimena da, eta hauxe du azken buruko xedea: parte-hartzaileek beren lanpostua sortzea eta bide horretatik lanean hastea.

Programa honen bidez, parte-hartzaileek ekintzailtzarako trebetasunak garatuko dituzte eta enpresa bat edo autoenpleguko lanpostu bat sortzeko negozio-plan baten ardatz nagusiak finkatuko dituzte. Lehenengo hiru hilabeteetan 1.050 euroko dirulaguntza jasoko dute, eta 5.000 euro, berriz, enpresa edo autoenpleguko proiektua gauzatutakoan.



## Enpresa Ideien V. Lehiaketa

Apirilaren 19an amaituko da Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Enpresa Ideien Bankuaren V. Lehiaketa. Lehiaketaren bidez, eskualdean negozio-aukerak sustatzeko interesa eta proiektuak dituzten pertsonak saritu nahi dira. Behargintza da ekimenaren sustatzailea, eta 8.500 euro banatuko ditu saritan; horietatik, 1.200 euro Muskizko herritarrek landutako 4 proiekturi emango zaizkie, hain zuzen ere.

Parte hartzeko, lehiaketarekin elkar-

lanean diharduten udalerrietako batean erroldatuta egon behar dute interesdunek, eta beren ideien nondik norakoei buruzko gidoi bat landu behar dute. Enpresa Ideien V. Lehiaketako epaimahaikideek honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan proiektuak ebaluatzeko garaian: proiektu irudimentsuak diren, enpresa-ehunean ezartzeko aukerarik daukaten, zer-nolako ingurumen-inplikazioa duten eta eskualdeko udalerrien premiei zenbateraino erantzuten dieten.



## Informazio-panelak, auzo guztietan

Udalak 18 informazio-panel jarri ditu, auzo guztietan banatuta, Muskizko herritarrei Udalaren edo herriko elkarteekin berri emateko, era iraunkorrean. Panel horien bidez, zenbait helburu bete nahi dira: batetik, udal-erabakien gardentasuna sustatzea eta herria garbi edukitzea, hala nola, altzariak, kaleko argiak edo hormak, elementu horietan ezartzen baitziren informazio- eta publizitate-kartelak, orain arte.

Panelak metakrilato zuriko gainaldea dute, eta herriaren logotipoa serigrafiaz irudikatu da gainalde horretan. Jarri diren panel horietatik seik altzairu galbanizatuzko egitura dute, bi metro ingurukoa. Gainerakoak, berriz, hormetan jartzeak dira.



## Aparkatzeko beste 20 plaza, Malekoian

Malekoiko aparkalekuaren berrantolaketari esker, aparkatzeko 20 plaza gehiago lortu dira, ezinduen ibilgailuentzako 5 gunez eta motorrentzat bereziki egokitu-riko 3 gunez gainera. Behar-beharrezko ekimena zen, kontuan hartuta zenbat jende biltzen den Osasun Etxearen, Kultura Etxearen, kiroldegia eta futbol-zelaiaren inguruan. Aparkalekuaren berrantolaketa egin ondoren, plazak margotzeko 6.000 euroko inbertsioa egin behar izan da.

Herritarrek Maleko inguruan aparkatzeko tokirik ezari konponbidea emateko eskatu zioten Muskizko Udalari. Egoerari irtenbidea bilatzeko, ikerketa topografiko bat eskatu zuen Udalak, aurrez toki horretan zegoen aparkalekua hobeto aprobetxatzeko. Azkenean, guztira 78 aparkaleku eta ezinduentzako 5 gune lortu ahal izan dira.



## Giro atsegina, Gaztegunean

Udalak alarma-sistema ezarri du Gaztegunean, udal-zentro horretako erabiltzaileen arteko balizko egoera desegokiak antzemateko. Neurri horren bidez, gazte-lokal horren erabiltzaileen kopurua garai bateko mailara igo nahi du Udalak; izan ere, azken hilabeteetan jaitsi egin da kopuru hori, nerabe jakin batzuen jarrera zela-eta, dirudienez.

## Pelikula filmatzen, La Arenako hondartzan

Ernesto del Río zuzendariak La Arenako hondartzan filmatu ditu bere hurrengo filmeko bi sekuentzia; horietako bat, filmeko azkena. Filmean, emakumezko epaile batek bere alaba nerabearekin duen harreman zailari aurre egin beharko dio. Zinebiko zuzendariak euskal kostaldeko eremu hori aldarrikatu nahi izan du horrela, eremu nahiko ezezaguna baita.



## Rigadako bidea berritzea

Muskizko Udalak La Cadena auzoa Rigadako herrigunearekin lotzen duen bidea berritzeko lanak esleitu ditu; lan horien amaierako zenbatekoa 85.000 euro ingurukoa da. Oso bide erabilia da, bai paseorako baita errepide nagusiaren ordezkoko bide modura ere, hainbat etxebizitza eta herri-finkatarako sarbidea ematen baitu.



## Muskizko meatze-esparruen azterketa historiko-arkeologikoa

**Balio arkeologikoa duten meategien arrastoak HAPOn sartuko dira, interes turistiko instalazio modura**

Udalak herriko meatze-esparruen azterketa historiko-arkeologikoa egingo du, esparru haietako bakoitzaren interesa zehazteko, interes turistiko-kulturala duten instalazioak HAPOn sartzeari begira.

Azterlanak 50.000 euroko aurrekontua du, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak diruz lagundutako proiektua da; hain zuzen ere, zenbateko horren %85 jarriko du. Meategien arrastoen azterketa egingo da, eta, era berean, gune bakoitzaren historia bilduko da, azterlan horren arabera

erabakitzeko zein esparru lehengoratu eta babestu. Amalia Vizcaína esparrua, Josefina meategia eta Complemento soberakina Donejakue Bideko Monumentu Multzoari atxikitako elementu izendatuta daude gaur egun, baina ez dago zehaztuta haien babes-eremua, eta, beraz, ez dago bermatuta inguru horien babes egokia.

Aurretiko ikerketa amaitutakoan, Udalak Plan Berezia idatziko du, eta dokumentu horixe erabiliko da interes historikoa edo arkeologikoa duten meatze-guneak lehengoratzeko.



## Arenao bideko zoladura berria

Dagoeneko amaitu dira Arenao bidea izenez ezaguna den bidea zolatzeko lanak. Zehazki, lehengo hormigoizko geruzaren ordez 20 bat zentimetro lodi den geruza trinko bat jarri da, eta haren gainean asfaltozko aglomeratua zabaldu da, akabera gisa. Era berean, euri-uren kanalizazioa hobetu da.

Lanen amaierako zenbatekoa 48.000 eurokoa izan da (BEZ barne); hau da, obra lizitaziora atera zeneko zenbatekoaren heren bat gutxiago.



## Kaleko argi eragingarriak, Errota Zaharren

Udalak aldatu egin ditu San Juan industrialdeko oinezkoen eremuko kaleko argiak. Hain zuzen ere, energia aurrezteko politikari erantzuteko egokiagoak diren argiak jarri ditu. Aldaketa horren bidez, %35 murriztu nahi da energia-kontsumoa eremu horretan (haur-parke bat dago inguruan).

## Muskizko familia batek saria irabazi du “D bitamina” kanpainan

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak Muskizko familia bat saritu du, *D bitamina, Aberastu bere heziketa!* kanpainaren bidez.

Informazio-kanpaina urte hasieran jarri zuten abian, 2-3 urteko haurren aurrematrikula egiteko epea hasi baino pixka bat lehenago, gurasoek gogoeta egin zezaten euskarazko heziketaren garrantziari buruz eta aukera izan zezaten beraien zalantzak Alkarbide zerbitzuko arduradunei helarazteko.



## EL KAR RIZ KETA

### Talleres Gallarreta, langile bereziak

“Lan espezifikoetarako trebetasunak dituzten pertsonak dira, hala nola, lorezaintzarako trebetasuna dutenak

Muskizko hamahiru herritar –guztiak ere ezintasunen bat dutenak– ari dira Talleres Gallarreta Lantegiak enpresan lanean. 1987an sortu zen lantegia, Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella eta Trapagarango udalen ekimenez, kolektibo honi eskolarikasketak amaitu ondoren lan-arloari begira irtenbideren bat emateko premiaz jabetuta. Nolanahi ere, hasiera oso gogorra izan zen, jende askok ez baitzuen behar adinako konfiantzarik profesional hauen lanaren kalitatean.

**G/ Zuen ustez, jendea ohartzen da Talleres Gallarreta Lantegiak moduko enpresek egiten duten lanaz?**

*E/ Herritarrek gero eta gehiago kontuan hartzen dute era horretako lantegietan egiten den lana, beren lan onaren bidez ezintasuna duten pertsonen buruz genuen ikuspegia aldatzea lortu dutelako. Hala, dagoeneko ez ditugu hartzen enplegu batean*

*aritzeko muga jakin batzuk dituzten pertsona modura; aitzitik, gaitasun eta trebetasun jakin batzuk dituzten pertsonak dira, askotariko lanak egin ditzaketanak, laguntza emanez gero.*

**G/ Zer berezitasun nagusi ditu ezintasunak dituzten pertsonekin lan egiteak, lana bera erronka duten pertsonekin aritzeak?**

*E/ Pertsona baten ezintasunek lanpostuan eragozpenik eragin ez dezaten, profesionalak zehatz-mehatz aztertzen dituzte pertsona horien gaitasunak, bakoitzari erabateko autonomiaz betetzeko moduko eginkizuna esleitzeko.*

**G/ Ezintasunak dituzten pertsonen enplegua ematea zer neurritan da haien integrazioarako lagungarria?**

*E/ Lan-jardueraren bidez lanari loturiko askotariko trebetasun eta jarrerak garatzeko*

*aukera dute, eta egokitzen dizkieten eginkizunetan erabateko konfiantza eskaintzeko moduan daude. Enpleguak, gainera, errutina jakin batzuk hartzea ahalbidetzen die: egunerokotasunean erritmo jakin bat ezartzea, eta alde batera uztea bakardadea eta, kasu batzuetan, ilusiorik eza.*

**G/ Zer ibilbide egin du Talleres Gallarreta Lantegiak enpresak?**

*E/ Hasiera oso zaila izan zen. Dena dela, urteek aurrera egin ahala, gure tartetxoak lortu dugu lan-merkatuko hainbat sektoretan, esaterako, lorezaintzan, zurgintzan, eta zenbait jardueraren azpikontratazioan, adibidez, paketatze-lanetan eta dokumentuak deuseztatze lanetan. Gaur egun, krisiak bultzatuta, teknologia berriekin loturiko negozio-ildo berriak aztertzen ari gara, baita merkatuan erakargarri gerta daitezkeen egurrezko salgaien bidez berrikuntzak lantzen ere.*



## Zuhaitzak Barbadun ibaian

*Zuhaitz Eguna dela-eta, 200 zuhaitz inguru landatu dira Barbadun ibaiaren ezkerrean eta Castaños errekan, Muskizko lau ikastetxetako ikasleen laguntzaz.*

7 eta 14 urte bitarteko 141 gaztek parte hartu dute zuhaitz-landaketan, eta ibaiertzeko espezie autoktonoak erabili dituzte zeregin horretan. Aurtengo saioan, Ikastolako, San Juan Ikastetxeko eta Cantarranas ikastetxe publikoko Lehen Hezkuntzako ikasleak eta Muskizko BHIkoak elkartu dira.

Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan antolatutako ekintza honen bitartez, gure ibaien ertzetan landare inbaditzaileen eraso saihesteko espezie autoktonoak landatzea zein garrantzizkoa den erakutsi nahi izan zaie gazteei.



Udalak Barbadun ibaiak aukeratu du aurtengo Zuhaitz Eguna ospatzeko, ibai-ibilgua lehengoratzeko proiektu bat eta inguruko pasealekuaren egokitzapena garatzen ari direla baliaituta.

## Adimen emozionaleko tailerra

Martxoan, gurasoentzako adimen emozionaleko tailerra egin da, honako helburu honekin: adimen emozionala lantzea eta horretan trebatzea, familiariek gazteen heldutasun emozionala, autonomia eta gaitasuna sustatzeko lagungarri izango zaizkien ohitura batzuk hartzeko.

Familia-bizitza ikaskuntza emozionalerako abiapuntua dela oinarri hartuta, tailerreko talde-dinamiken bidez gurasoei norberaren eta besteen emozioak ezagutzeko eta baliatzeko beharrezko tresnak eskaini zaizkie, seme-alaben heziketari begira lagungarri izango zaizkienak.